

zumaiia

12. zenbakia • 2010eko Abendua

ZU
udalaldizkaria



Zumaiako Udala



Arrangoleta
Zumaiako
Haurreskola



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Pixkana-pixkana
handituz



Arrangoleta Haurreskola handitu egingo dute; obra horien bidez, eskolako haurrek laster jangela izango dute

aurkibidea

2 Erregistro zibila

3 Inkesta

4 Udala zuzenean / Fototeka

5 Kexak eta iradokizunak

6 Motxian

8 Arrangoleta Haurreskola

11 Geoparkeen sarea

12 Eusebio Gurrutxagako garajeak

13 Konpostajea

14 Mugi Zerbitzua

15 Prozesuak

16 Auzoak

Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu *Zumaiazu* aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Argitaratzailea: Zumaiako Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Zumaiako Udala eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 4.500 ale
L.G: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

udal zerbitzua; Erregistro zibila

Izapideak:

- Inskripzioak.
- Zibilez ezkontzeko betebeharrak.
- Izen-deiturak aldatzea.
- Nazionalitatea eskatzea.
- Heriotza.
- Bestelako izapideak.

Zein motatako ziurtagiriak ematen ditu Erregistro Zibilak?

Erregistro Zibiletan ematen diren ziurtagiriak pertsonen egoera zibilari buruzkoak eta Legeak zehazten dituenak dira: jaiotza, ezkontza, izen-abizenak, naziotasuna, heriotza, bizi- eta egoera-agiria, tutoretza...

*En el Registro Civil se pueden obtener los certificados el estado civil que determina la Ley: nacimientos, bodas, nombre y apellidos, nacionalidad, fallecimiento, estado civil, tutela...
Tramites: inscripción, requisitos para casarse por lo civil, Cambio de nombre y/o apellidos, pedir nacionalidad, fallecimiento...*





Euskararen bidean, zer egin beharko genuke?



Jose Antonio Puente

Ez naiz euskal hiztuna. Bere garaian, tailerlean eskaini ziguten euskara ikasteko aukera eta klaseetan ibili nintzen. Gero, erreleboan lan eginez, zaila egin zitzaidan jarraitzea eta utzi egin nion. Beharrezkoa da, euskara ikastea, nire inguruan guztiek hitz egiten dute, eta neuk ere egin beharko nuke berriro ahalegina.

No soy vasco parlante. Hace años me ofrecieron en la empresa asistir a cursos de euskera pero se me hizo difícil la asistencia y lo deje. Para mí es necesario aprender euskera.



Maria Dolores Ibarbia

Euskararen alde gehiago egin dezakegula uste dut. Hitz egiten dugu geure artean kalean euskaraz, baina baita erdaraz ere. Nik etxean ikusten dut hori. Niri euskaraz egiten didate, eta baita umeei ere, baina gero beraien artean asko hitz egiten dute erdaraz. Eta pena ematen dit horrek.

Se puede hacer más a favor del euskera. Yo noto en casa que a mí y a los niños nos hablan en euskera, pero luego entre ellos hablan en castellano.



Esteban Letamendia

Euskararen alde beti egin dezakegu gehiago. Nik uste, euskaraz hitz egitearena ohitura kontua dela. Helduek eta gazteek, nik uste, ohitura handiagoa dutela euskaraz egiteko. Baina erdibideangaudenok pixka bat nahastuta gaudela uste dut. Gure adinekook bi hizkuntzak nahasten ditugu.

Yo creo que el hablar en euskera es cuestión de costumbre. Creo que las personas mayores y los jóvenes tienen más costumbre que nosotros de hablar en euskera.



Jon Urbieta Jimenez

Euskaraz Gipuzkoako herrietan asko hitz egiten dela uste dut. Nik kalean, dendetan... ahal dudan leku guztietan euskaraz egiten dut. Hiriburura joandakoan, ordea, gauza asko aldatzen da. Han erdaraz egiteko ohitura gehiago dute.

Creo que en los pueblos de Guipúzcoa se habla mucho en euskera. Yo por lo menos hablo en euskera en todos los sitios que puedo. Pero en la ciudad todo cambia, ya que tienen más costumbre de hablar en castellano.

udala



a benduaren 3an izango da Euskararen Nazioarteko eguna, eta egun horren harira aste horretarako ekintza desberdinak antolatu ditu Zumaiaiko Udalaren Euskara Sailak. Beraz, Udalak herritarrak gure hizkuntza erabiltzera eta egun horri lotutako ekintzetan parte hartzera bultzatu nahi ditu. Denon artean lortuko baitugu euskara normalizatu eta euskaraz bizitzeko eskubidea izatea.

e l 3 de diciembre se celebrará el Día Internacional del Euskera, y en base a ese día el departamento de Euskara del Ayuntamiento ha organizado distintas actividades para esa semana. Desde el Ayuntamiento se quiere invitar a todos los vecinos para que se unan a esas actividades. Unidos lograremos que se normalice el uso del euskera, y que tengamos el derecho a vivir en euskera.

Fototeka



nolakoa zen garai bateko Zumaia? Udala, galdera horri erantzun eta herritarrei ezagutarazteko asmoarekin ari da eratzten Zumaiaiko argazki zaharren artxiboa. Helburua zumaiairek herriko ondarea bilatzeko eta zabaltzeko lanean parte hartzea da. Zuk ere 1975. urtea baino lehen ateratako argazkiren bat aurkitzen baduzu, aurkeztu ezazu kultur bulegoetan eta baliteke hurrengo udal aldizkarian argitaratuta ikustea.

Argazki artxibo osoa www.euskomedia.org helbidean dago ikusgai.



Mutiko arraunlari talde batek irabazitako trofeoarekin desfilean.

Niños remeros desfilando con el trofeo ganado.



Musika Bandako talde erretratu Udaletxearen aurrean.

Fotografía de grupo frente al ayuntamiento de la Banda de Música.

Herritarren ahotsa buzoietan



www.zumaia.net

Iradokizuna

Etxebide

Hemendik aurrera babestutako edo tasatutako etxebizitzaren zozketan parte hartzeko udaletxetik pasa behar da Etxebideko inprimaki bat betetzera. Nire galdera hau da: ni lehendik Etxebiden apuntatuta banago, berriro bete behar dut inprimaki hori zozketa horretan parte hartzeko, ala ez? Mila esker.

Erantzuna

Lehendik Etxebideko zerrendetan apuntatuta daudenek ez daukate berriro izena eman beharrik. Udalak Etxebiderek inprimakiaren bidez, lehendik Etxebiden izena emanda zeuden bizilagunekin eta orain apuntatzen ari diren berriekin zerrenda bakar bat osatuko da. Baina zuek ez daukazue berriro apuntatu beharrik.

Sugerencia

Cacas de perro

Es vergonzoso como están las calles de cacas de perro, sobre todo la c/ San José. Todos los perros desde la c/ Arritokieta y Foruen enparantza vienen a cagar a la calle que baja del hospital a San José, aparte de todos los del mismo barrio. No se podría multar, como se está haciendo en otros municipios, la

no recogida de los excrementos por parte de los dueños? A lo mejor esta medida les intimida y empiezan a tener "conciencia".

Respuesta

Tienes toda la razón en cuanto a lo poco cívico del comportamiento de los dueños de los animales. Estamos trabajando para que la policía municipal realice la labor de vigilancia con respecto a este tema. Pero lo que realmente solucionaría el problema, no sería un cambio de actitud en la policía, sino un cambio de actitud de todos, tanto del dueño como la ciudadanía en general, que al ver que se dan estas actitudes deberían reprocharlas. Es una labor de todos y todas concienciarnos y concienciar a los vecinos.

Iradokizuna

Forondako ikastaroak

7 urteko eta 5 urteko umeak dauzkagu, eta mutilak eskolatik kanpo aktibitate batean izena ematea pentsatzen ari gara. Interneten ikusi nuen iaz Forondan umeentzako kurtsoak zeudela: eskulanak, pintura, eta abar. Aurten, liburutegi berria laister herri erdian egongo da. Udalak antolatzen baditu kurtso hauek, liburutegi berrian egongo al dira, edo gure ume txikiekin aldapan gora joan beharko dugu?

Erantzuna

Bai, urtarrilean gauzak ondo badoaz liburutegia, erakusketa aretoa eta kultur bulegoak Alondegira pasatuko dira. Hala ere, ikastaroak Forondan jarraituko dute, hori bai, egoera hobean, pixkanaka lokalak hobetuz etab.

Horretaz gain musika eskolaren ikastaroak ere izango dituzu, eta baita ludotekaren eskaintza ere. Ikastaroei buruz galdera zehatzagorik jakin nahi izanez gero, zuen esanetara gaituzue (Kultura Saila).

Sugerencia

Embarazadas

Las mujeres embarazadas tenemos un gran problema en aparcar el coche ya que no tenemos bastante espacio para salir del aparcamiento. Este asunto yo creo que nadie lo hemos pensado pero a mi me a ocurrido que me han tenido que sacar el coche dos veces ya que la barriga de embarazada no me daba para meterme al coche. Bueno con este mensaje espero que el Ayuntamiento se plantee en poner algunos espacios para nosotras ya que es un pueblo de mayor natalidad y como me a pasado a mí habrá pasado a más embarazadas. Agur se despide una vecina de Zumaia.

Respuesta

No creemos ser capaces de solucionar el problema que nos indicas en un breve plazo de tiempo. Pero te agradecemos encarecidamente la puntualización que nos haces. A la hora de diseñar las calles hay que tener en cuenta muchos aspectos y este no se ha tenido en cuenta suficientemente por lo que nos comentas. Si se diseñasen las plazas de aparcamiento "un poco" más anchas en Zumaia se perderían muchas plazas de aparcamiento y entonces tendríamos decenas de mensajes mostrándonos su desacuerdo. Y la solución de un problema puntual acarrearía la incomprensión y el enfado de muchos vecinos. No es fácil decidir la medida justa, cada uno tenemos nuestra opinión. Pero para tomar la decisión de ensanchar todos los aparcamientos de Zumaia, comprenderás que las razones y las solicitudes deben de ser importantes en número y en peso. Tampoco ayuda mucho que cada vez haya más coches y más grandes. La solución no es dar más sitio al coche, si no hacer un uso responsable por parte de todos. Gracias y que os vaya todo bien.

13 etxebizitza libre salgai Odietan



Zumaia Lantzenek salgai jarri ditu Odieta-San Jose auzoa errehabilitatu ondoren eraiki diren 13 etxebizitza, trasteleku eta lokalak. Etxebizitzak merkatu librean salduko dira, salmentarako Lehia eta Publizitatearen printzipioak errespetatuko dituen prozedura baten bidez. Eta etxe horietakoren bat eskuratu nahi duenak abenduaren 13a baino lehen izena eman beharko du Zumaia Lantzenek udaletxean duen bulegoan. Eskatera egiteko beharrezkoa izango da eskabide-orria betetzea eta 250 € banketxean sartzea, seinale gisa.

Eskabidean interesatutako etxebizitza edo etxebizitzak zein diren adierazi beharko da, erosteko lehentasun ordena adieraziz. Behin eskaera epea bukatutakoan etxebizitzak esleituko dira. Informazio gehiago: www.zumaia.net webgunean (prezioak, planoak...).

Zumaia Lantzen ha puesto a la venta 13 viviendas, trasteros y locales comerciales resultantes de la rehabilitación del barrio de Odieta-San José. Las viviendas se venderán en el mercado libre siguiendo un procedimiento que garantiza la publicidad y concurrencia de la venta. Los interesados en la compra de alguna de esas viviendas tendrán que presentar las solicitudes de compra antes del 13 de diciembre. Para más información consulta la página web www.zumaia.net.

700 produktutik gora Zumaian, eskuz esku



Urriaren 23an, 'Zumaian eskuz esku!' bigarren eskuko produktuen azoka ospatu zen Eusebio Gurrutxaga plazan, Zumaia Udalak bultzatuta. Ekintza horri esker, 700 produktu baino gehiago eskualdatu ziren, berrerabilera indartu zen eta, era berean, baliabideak xahutzea eta hondakinak pilatzea saihestu zen. Azokan, 2.320 produktu jarri ziren salgai, eta herena, 770 produktu, saldu ziren. Eskuz eskuko salerosketa horretan 2.300 euro mugitu ziren. Antolatzaileak "gustura" agertu ziren azokak izandako harrerarekin.

Herritarrek dohaintzan emandako produktuak beharra duten familien artean banatu dira, Zumaia Gizarte Zerbitzuen Sailarekin elkarlanean. Soberakinak, berriz, Emaus Fundazioaren laguntzarekin bideratu dira.

El 23 de octubre se celebró la feria de segunda mano 'Zumaian eskuz esku!', en la plaza Eusebio Gurrutxaga. A través de esta iniciativa, se pretende incentivar la reutilización de los productos y evitar la acumulación de residuos y la destrucción de recursos. De los 2.320 productos que se pusieron a la venta, se vendieron 770, y todo ello generó un movimiento de 2.300 euros.

Las donaciones realizadas por los ciudadanos se han repartido entre las familias necesitadas, en colaboración con el Departamento de Servicios Sociales. Y los excedentes se distribuyeron a través de la Fundación Emaus.

San Juan egoitzakoak ekintzaz beteta



Irudian, San Juan Egoitzako kideak

San Juan egoitzako kideek ekintza asko egin dituzte azken hilabeteotan, horien artean, kanpoan egin dituzten meriendak, herriko txoko ugari ikusteko egindako bisitak, Algorri Interpretazio Zentrora egindako txangoa... Aisialdiko ekintzak eta ekintza kulturalak tartekatu dituzte irteeretan.

Baina, irteera horiez gain, jende ugari gonbidatu dute egoitzara ere, eta han izan dira, besteak beste, Hogarreko Koroa, Lasarteko Coro Rociero eta Nagusilaneko Koroa, Zarauzko trikitilariak (Azkue eta Lopetegi), Tolosako Txilaba Elkartea...

La residencia San Juan ha realizado multitud de actividades en los últimos meses. Destacan las meriendas que han hecho fuera, las visitas a distintos lugares del pueblo y la salida realizada al Centro de Interpretación Algorri. En todas ellas, se han intercalado actividades de ocio y actividades culturales.

Por otra parte, además de haber llevado a cabo dichas salidas, han acogido a varios invitados, como el Coro de Hogar, el Coro Rociero de Lasarte-Oria, el Coro de Nagusilan, los trikitilaris de Zarautz (Azkue y Lopetegi), la asociación Tolosako Txilaba Elkartea...

Txomin Agirre kaia irisgarriagoa



Bukatzeaz dira Txomin Agirre kaiko eta Mendaro Marinela kaleko urbanizazio lanak. Udan hasi ziren lan horiek, eta urtea bukatzerako berrituta izango da inguru hori guztia. Txomin Agirre eta Mendaro Marinela kaleak hiritartzea du helburu egitasmo horrek; eta, ildo beretik, bien arteko lotunea, Moilaberriko zubia, irisgarritasun irizpideetara egokituta izango da berriro irekitzean.

Obrak bost hilabete inguru iraun dute, eta Moilaberriko zubia itxita izan da irailaren 20tik. Obra horien bidez, herri barruko mugikortasuna hobetu nahi izan du Udalak. Zubi berriarekin, erosoagoa eta errazagoa izango da zumaiaz guztiontzat herriaren alde batetik bestera joatea.

Las obras de reurbanización de las calles Txomin Agirre y Mendaro Marinela están a punto de finalizar. Comenzaron el verano pasado, y la reurbanización de la zona quedará finalizada antes de que termine el año. El objeto de los trabajos acometidos es urbanizar las calles Txomin Agirre y Mendaro Marinela, y al mismo tiempo, hacer más accesible el puente de Moilaberri. Las obras han durado aproximadamente cinco meses y, para tal efecto, el puente de Mollaberri ha permanecido cerrado desde septiembre. Gracias al puente nuevo, será más fácil y más cómodo para todos cruzar de una calle a la otra.

Arrangoleta gero eta erosoagoa

Arrangoleta Haurreskolari aterpea egingo diote sarreran, eta haurrentzat jangela ere izango du laster.

La escuela infantil Arrangoleta pronto tendrá un porche y un comedor nuevo para los niños.



arrangoletako Haurreskolan gero eta leku gutxiago dute libre, eta arazo horri aurre egiteko handitzeko lanak hasiko dituzte abenduaren bukaeran.

Urtea bukatzerako hasiko dituzte haur eskola handitzeko obrak, eta,

handitze lan horiei esker, erosoago ibiliko dira bai haurrak eta bai hezitzaileak.

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren dekretuak eskatzen duen azalera du haur eskolak, baina oso leku gutxi dago haurrentzat, hezitzaileentzat

eta gurasoentzat. Handitzean, 21,75 metro koadroko jangela berria egingo zaio. Eta horrela, haurrei beren otorduetarako jangela ere atonduko zaie, gaur egun, haurren logela egokitzen baitute otordu bakoitzean. Laster, ordea, jangela propioa izango dute.

La escuela infantil de Arrangoleta se ampliará en breve para disponer de un nuevo comedor escolar. Las obras empezarán antes de

terminar el año. El edificio está construido según el decreto del Gobierno Vasco, pero se ampliará para la comodidad de los educadores y los niños, ya

que hoy en día es necesario acomodar un dormitorio a la hora de las comidas. Pronto los niños dispondrán de su propio comedor.



Argazkian, Arrangoleta Haurreskola kanpotik eta barrutik.

Haur eskolan orain arte egin diren obra guztiak hango hezitzaile eta gurasoen eskaeren eta lehentasunen arabera egin izan dira, eta oraingoan ere horrelaxe izango da.

Jangela handiagoa izatea lehentasuna zen guraso eta hezitzaileentzat, eta arazo horri aurre egin nahi dio Udalak, obra horien bidez.

Handitzearekin batera, eskolaren sarreran aterpea ere egingo da. Euria egiten duen egunetan, umeei eta beren gurasoek aterpea izan dezaten eskolara sartzerakoan.

Haur gehiago

Laster egingo diren lan horiez gain, haur eskolan bestelako egokitzapenik ere egin dute. Izan ere, gelen zatiketa medio, eskaria eta eskaintza ez zetozen bat, orain artean, eta egokitzapen hori ere egin dute.

Horri esker, gaur egun 0-1 urte bitarteko gela bat dago. Eta beste gela bat 1-2 urte bitarteko haurrentzat. Taldekatze

beste gela bat ere badute. Taldekatze gelan, 0-1 urteko eta 1-2 urteko haurrak elkarrekin daude. Horrela egiten diote aurre gaur egun Zumaian dagoen eskariari.

Orain arte, Arrangoleta Haurreskolan 29 umerentzako tokia zegoen, eta, aldaketa horren bidez, 31 ume hartu ahal izango dira. Gainera, oraingoz, Zumaian ez da haur eskolan tokirik gabeko haurrik.

Urtarrileko bigarren hamabostaldian irekiko da matrikulazio epea berriro Arrangoleta Haurreskolan eta Eskola Txikian.

Pixkanaka handituz eta hobetuz

Arrangoleta Haurreskola 2008. urteko maiatzean jarri zen abian. Eskola Txikia txiki gelditu ostean erabaki zuen Udalak Arrangoleta zabaltzea.

Orduan, 5 haur hasi ziren. Eta bi urte igaro ondoren, gaur egun 30 haur joaten dira egunero Arrangoleta Haurreskolara.

durante estas obras también se realizará un pequeño porche a la entrada del edificio, donde los padres y niños podrán cobijarse los días de lluvia.

Por otra parte, la escuela infantil ya ha adecuado su oferta a la demanda, y por el momento, no hay ningún niño sin plaza en Zumaia. Actualmente, el centro dispone de 31 plazas.

La siguiente oportunidad para inscribir a los niños en las escuelas infantiles Arrangoleta y Eskola Txikia de Zumaia, será en la segunda quincena de enero.

La escuela infantil abrió sus puertas con tan solo 5 niños en mayo de 2008. Después de dos años, la escuela infantil acoge cada día a 30 niños.

Geoparkea, zer da?



esfortzu eta lan askoren ondoren, hasi da fruituak ematen Zumaiaiko, Debako eta Mutrikuko eremua Geoparke izendatzeko hautagaitza. Izan ere, urriaren 1ean onartu zuen Geoparkeen Sare Europarrak hiru udalek aurkeztutako hautagaitza Geoparkeen sarean sartzea, Greziako Lesbos uhartean egin zuten Geoparkeen Nazioarteko Biltzarrean. Baina izendapena, hasiera besterik ez da izan, datozen urteetan Geoparkea garatzeko konpromisoa hartu baitute hiru udalak.

Zer da geoparke bat?

Geoparke bat bere ondare geologikoagatik nabarmentzen den lurralde edo eremua da. Espazio edo eremu hori hainbat arrazoiengatik izan daiteke berezia, besteak beste, zientzia arloan duen garrantziagatik, bitxitasunagatik, edertasunagatik edota, hezkuntza edo turismo balioagatik. Geoparkeek, ordea, ondare geologikoaz gain, ondare naturalak edo kulturalak ere izan ditzakete. Ondare hori zaindu eta duen balioa emateko estrategia bati hasiera ematen zaio Geoparke izendapenarekin.

Zein onura ekarriko ditu herrira?

Zumaiaiko, Debako eta Mutrikuko eremua Geoparke izendatzeak onura asko izango ditu inguruan. Herriari eta inguruari zenbait onura ekartzeaz gain, arlo jakin batzuei ere bereziki eragingo die. Hortaz, turismoari, kulturari, ingurumenari eta lurraldearen iraunkortasunari ekarpenak egingo dizkie Geoparke ereduak.

Oro har, herritarrek eta ingurua bisitatzeko dutenek lurraldearen aberastasun naturala eta kulturala hobeto ezagutzeko ekarriko du Geoparke izendapenak. Baina ondarea ezagutzera emateaz gain, sentsibilizatorako ekintzak egingo dira, eremuak duen balioaz ohartarazteko eta, horrela, ondarea babestea guztion lana dela ez ahazteko. Inguruko herritarrekin zein Geoparke eremura etortzen diren bisitariekin egingo da lana sentsibilizazioan.

Gaur egun abian dauden ekimenak bultzatu, eta beste zenbait sortu ere

egingo dira. Hau da, gaur egun egin ohi diren bisita gidatuak eta beste hainbat jarduerak bultzatzeko eta indartzeko ahalegina egingo da. Klima aldaketari buruz edo biodibertsitatearen inguruko gaiari buruz informazioa emateko eta gai horien inguruan kontzientziatzeko ere aukera ederra eman diezagukete sentsibilizazio ekintza horiek.

Zein izango dira epe motzean emango diren urratsak?

Geoparkearen kudeaketaz Geoparpen Elkarte arduratzen da. Elkarte hori hainbat bazkidek osatzen dute, eta Zumaiaiko Udala da horietako bat. Elkarte horrek proiektua aurrera eramateko '2011-2014 Lurraldeko Ekintza Plana' zehaztua du. Hauek dira ekintza plan horren ildo nagusiak: zientzia eta lurraldea, ingurumena eta iraunkortasuna, turismoa, kultura eta tokiko garapena. Horiez gain, zeharkako ekintzak ere landuko dituzte. Arlo bakoitzean dagokion azterketa egin ondoren, bakoitzari behar bezalako erantzuna ematen saiatuko da Geoparkeen Elkarteak.


el 1 de octubre se adhirió a la Red Europea de Geoparques la candidatura presentada por los ayuntamientos de Mutriku, Deba y Zumaia. Ese día se celebró la Asamblea

Internacional de los Geoparques y allí se aprobó la candidatura presentada conjuntamente por los tres ayuntamientos. En un geoparque se demuestran los métodos para la conservación

del patrimonio geológico, así como se desarrollan métodos para la enseñanza de disciplinas geocientíficas y aspectos ambientales más amplios.

Zein eremuk osatzen du Zumaia, Deba eta Mutrikuko Geoparkea?

1. Zumaia-Deba itsabazterreko itsasoko eta lurreko biotopo babestua
2. Arno
3. Izarraitz
4. Urolaren ibaiertza
5. Mutriku –Saturrarango itsaslabarra
6. Andutz Mendia



Kronologia:

1998: Zumaia-Deba marearteko zabalgunea itsas biotopo babestutzat hartu ahal izateko oinarri teknikoak ezartzeko txostena egin zen.

2002: Geoturismoko lehenengo bisitak Zumaian.

2003: Geoturismoko bisita programak egiten jarraitu zen eta hedatu egin ziren.

2004: Biotopo Babestua sortzeko prozesuaren lehenengo urratsak egiten hasi ziren.

2005: Zumaiaiko Algorri interpretazio zentroa inauguratu zen.

2006: Debaren eta Zumaiaaren arteko itsaslabarren inguruan bisitak egiten hasi ziren, itsasontziz.

2007: Mutrikuko Nautilus zentroa inauguratu zuten. Estratotipo ofizialak izendatu ziren Zumaian (D/S eta S/T).

2008: Flysch-aren ibilbideari hasiera eman zitzaion. Zumaia, Deba eta Mutrikuk elkarrekin beren ondore geologikoari eta naturalari balioa ematera bideratutako ekimena da ibilbide hori.

Unescok gizateriaren ondare izendatu zuten Debako Ekaingo haitzuloa, eta

Ekainberri erreplika inauguratu zen Zestean.

2009: Deba-Zumaia biotopo Babestuaren onarpena eta Geoparkeen Europako Sarean Geoparke izateko hautagaitzaren aurkezpena.

2010: Greziako Lesbos uhartean Mutrikuk, Deba eta Zumaia osatutako eremua Geoparke izendatu zuten.

Flysch-en ibilbideari 2010eko Euskadi Turismo Saria



azaroaren 17an, Eusko Jaurlaritzak emandako 2010 urteko Euskadi Turismo saria jaso zuen Flysch-aren ibilbideak. Ibilbide hori Geoparkearen eremuan sartzen da, beraz, Geoparkearen baloreetabateretara. Antolatzaileen

arabera, errokonozimendu horretan “baloratu beharrekoa guztien arteko kolaborazioa da”. Izan ere, Flysch-aren ibilbidea ezagutzera emateko elkarlan eta esfortzu handia egin da erakunde eta enpresa pribatuen aldetik.

dicho territorio forma parte de una red global, en la cual, se comparten las mejores prácticas relacionadas con la conservación del patrimonio geológico y su integración a las estrategias de desarrollo sostenible. La denominación del Geoparque traerá beneficios tanto a la zona como al pueblo de Zumaia, en particular, a algunos ámbitos como el turismo, el medioambiente y la cultura.

La denominación del Geoparque traerá beneficios tanto a la zona como al pueblo de Zumaia, en particular, a algunos ámbitos como el turismo, el medioambiente y la cultura.

Eusebio Gurrutxaga plazan garajea egitea atzeratu egin da



Eusebio Gurrutxaga plazan garajea gauzatzeko asmoa du Udalak. Baina, garajea egiten hasi aurretik, herritarrak garaje horiek kontzesioan hartzeko prest ote zeuden jakin nahi izan du. Horretarako, epe bat ireki zuen Udalak, garajeak kontzesioan hartzeko prest zeudenen izenak hartzeko. Epe hori bukatu ondoren, 22 lagunek eman zutela izena ikusita, behin-behinean proiektu hori atzeratzea erabaki du.

Proiektu horrek duen defizita ez dela onargarria ondorioztatu zuten Zumaia Lantzeneko Administrazio Kontseiluan. Horrelako eskaera

gutxirekin garajea egiten hastek ez duela zentzurik uste du Udalak. Garajea egiteko obraren kostu osoa 6.370.000 eurokoa da, eta, Udalak proiektua aurrera eramatea erabaki izan balu, 5.800.000 euroko defizitari egin beharko zion aurre.

Eusebio Gurrutxaga plazaren ezaugarriak kontuan hartuta, 277 autotarako lekua duen garaje bat egitea aurreikusten da. Bizi dugun krisi egoera hobetzen doan heinean eskatzaile kopuruak gora egingo duela uste du Udalak, eta momentu horretara arte atzeratuko da garajea egitea.

Behin-behineko bukaera txukuna

Oraingoz garajeak egingo ez direnez, plazari behin-behineko bukaera emango zaio. Dena den, plaza bukatzeko lanak egiterakoan, kontuan hartuko da agian hemendik urte gutxitara garajeak egiteko berriro obrak egin beharko direla. Hala ere, nahiz eta behin-behineko bukaera eman, Udalak txukun-txukun utziko ditu Eusebio Gurrutxaga plaza eta Odieta inguruko urbanizazioa. Urbanizazio hori, gainera, Torreberriko lanetarako erabilitako materialarekin egingo du, horrela, zabalguneko osoak itxura bera izan dezan.

el Ayuntamiento de Zumaia ha decidido posponer el proyecto del garaje de la plaza Eusebio Gurrutxaga, ya que sólo 22 personas se han comprometido a adquirir una plaza en el mismo. El

garaje que se prevé construir tiene 277 plazas, ya que no sería viable construir un garaje más pequeño por las características geológicas del lugar y, a día de hoy, supondría un desembolso de 5.800.000 euros para

el Ayuntamiento (el coste total sería de 6.370.000 euros). Por este motivo, el consistorio ha decidido posponer el proyecto hasta que mejore la situación económica y haya un interés de compra mayor que el actual.

Abian da autokonpostaje kanpaina



hiri-hondakinen zati handi bat hondakin organikoek osatzen du. Hori kontuan hartuta, etxeako konpostajea bultzatzeko kanpaina berri bat jarri da abian Zumaian. Kanpaina horren bidez, ahalik eta herritar gehienek hondakin horiek beren etxeetako zelaian konpostatzeko aukera izatea lortu nahi da. Izan ere, Zumaian hiri-hondakinen % 41 inguru materia organiko ustelkorra da, baina, gehienetan, nahasita biltzen da eta zabortegira doa azkenean. Zati hori norberak konpostatuz gero edo gaika bilduz gero, asko murriztuko lirateke zabortegira botatzen diren hondakinak.

Autokonpostajerako, zelai bat edo lorategi bat behar da. Hori horrela, eta Zumaiaiko etxebizitzak aztertu eta ezaugarriak ikusi ondoren, herriko etxebizitzan eraikin batzuetan konpostaje komunitarioa egiteko aukera izan dezakete aurrerago.

Etxeko konpostaje kanpainen izena emateko epea abendu bukaeran amaituko da. Kanpainen parte hartzen duenak, betebeharrez gain, abantailak ere izango ditu:

- Autokonpostatzeikastaroan (urtarrilean egingo da) parte hartuko du.

- Materiala jasoko du: konpost-kutxa, harrotzeko tresna eta konpost-gida.

- 2011. urtetik aurrera % 20ko beherapena zaborraren tasan.

- Zalantzak argitzeko, telefono bidezko laguntza teknikoa eta etxeetara bisitak.

Izena eman nahi duenak edo informazio gehiago jaso nahi duenak jo dezala Udaleko Ingurumen sailera. Edo, bestela, deitu 943 86 50 33 telefonora, edo idatzi mezu bat konpost@zumaiavoudala.com helbidera.

el Ayuntamiento de Zumaia ha puesto en marcha una campaña para que los ciudadanos de Zumaia se animen y hagan compost en casa con el fin de reducir la cantidad de residuos que van ha parar al vertedero. En Zumaia, el 41 % de los residuos

que se recogen son orgánicos, pero habitualmente se mezcla con otros residuos y termina en el vertedero.

Los ciudadanos que hagan compost tendrán una reducción del 20 % en la tasa de residuos urbanos a partir del 2011. Los vecinos que

así lo deseen y estén dispuestos ha hacer compost, solo tendrán que tener huerta o jardín, y deberán inscribirse en el departamento de Medioambiente del Ayuntamiento. También pueden hacerlo mediante el teléfono 943 86 50 33 o el e-mail: konpost@zumaiavoudala.com

Mugi zerbitzua hobetzeko neurri berriak



mugi zerbitzua hobetzeko, Zumaiaiko Udalak zerbitzua erretiratu egin du ohiko puntuetatik 15 egunez; abenduaren 22tik abenduaren 4ra. Denbora tarte horretan, bizikleten matxurak konpondu eta bizikletak uzteko puntu guztiak aztertu dira.

Mugi zerbitzua behar bezala ezartzearekin bat, neurri berriak izango ditu Mugik. Izan ere, zerbitzuaren erabilera guztiak ez dira egokiak izan orain arte, eta erabilera desegoki horiek eragin negatiboa izan dute zerbitzuan. Herritarrei Mugiko bizikletekin arduraz jokatzeko eskatzen die Udalak. Neurri berriak hartzeko orduan, orain arte

Zumaian zerbitzuak izan duen bilakaera eduki du kontuan.

Erabilera desegokiak saihesteko, honako neurriak hartu dira:

- 18 urtez azpikoek ezin izango dute erabili zerbitzua. Horregatik, desaktibatuta egingo ditu Mugik gaur egun dituen adingabeko erabiltzaileen txartelak. Eta izena emanda egon diren denboraren arabera kobratuko zaie kuota.
- Vitoriano Arrate kaleko bizikleta puntua lekuz aldatuko da.
- Bizikleta erabiltzeko denbora ordubetekoa izango da.

Zerbitzua bide onean doa

Mugi zerbitzu berria abian jarri zenetik, erabiltzaile kopuruak gora egin du. Gaur egun, 800 lagun baino gehiago daude zerbitzuan erregistratuta, eta horrek adierazten du Mugi zerbitzuaren sistema ongi barneratu dela herrian.

Erabiltzaile kopuruekin batera, erabilerak ere gora egin du, eta Zumaiaiko Udala gustura dago Mugi zerbitzuaren datuekin. Oraindik Mugi zerbitzua ezagutzen ez duten herritarrak animatu nahi ditu Mugiko bizikletak erabiltzera. Zerbitzuan erregistratu nahi duenak Zumaiaiko Turismo bulegora joan behar du.

Con el objetivo de mejorar el servicio de bicicletas Mugi, el Ayuntamiento ha decidido establecer nuevas normas para su uso. Entre las medidas que se tendrán que cumplir desde el 4 de diciembre, está que los menores de 18 años no podrán usar el servicio. El tiempo de uso de las bicicletas, también, será reducida de dos horas a una hora. El servicio renovado de Mugi empezó a funcionar el 2 de agosto, y el Ayunta-

miento esta contento con la acogida que ha tenido entre los vecinos. Hoy en día Mugi tiene 800 usuarios registrados.

Nuevas medidas para mejorar el servicio Mugi

Con el objetivo de mejorar el servicio de bicicletas Mugi, el Ayuntamiento ha decidido establecer nuevas normas para su uso. Estas medidas que entrarán en vigor el próximo 4 de

diciembre contemplan la prohibición para los menores de 18 años, la reducción del tiempo de dos a una hora y el traslado del punto de alquiler de la calle Arrate.

El servicio renovado de Mugi empezó a funcionar el 2 de agosto, y el Ayuntamiento está satisfecho con la acogida que ha tenido entre los vecinos. Hoy en día, Mugi tiene 800 usuarios registrados.

Aurrekontu parte hartzaileen prozesua indartuz



Herria hobetzeko, parte hartuz

2011ko aurrekontuak osatzeko garaian, oraingoan ere herritarren ekarpenak jaso nahi izan ditu Zumaiako Udalak. Herritarren parte-hartzea bermatzeko, urriaren 14an jarri zen abian parte-hartzean oinarritutako aurrekontuen prozesua. Egun horretan egin zen lehen

bilera auzoetako bizilagunekin. Hainbat bilera egin dira ordutik, eta Udalak ekarpen ugari jaso ditu.

Lehenengo bilera Zumaiako auzoetako bizilagunekin egin zen. Bilera horretan, parte hartu zuten bizilagunek beraien auzoetan dauden beharren berri eman

eta proposamenak egiteko aukera izan zuten.

Ondoren, azaroaren 3an, arlokako bilerei eman zieten hasiera. Bilera horretan, hainbat arlotan dabiltzan eragileak bildu ziren, besteak beste, gizarte zerbitzuetan, kirolean, kulturean, merkataritzan, euskaran, hezkuntzan, hirigintzan, ingurumenean eta turismoan dabiltzanak. Hurrengo bilerarako, berriz, aurreko bi saio horietan egindako proposamenak aztertu ziren. Azaroaren 17an egin zen saio hori, eta udal teknikari eta politikariek bildu ziren herritarrak, proposamenak aztertzeko. Bilera horretan, 2011. urteko aurrekontuetako ekarpenez hitz egiteaz gain, aurreko bi urteetako parte-hartze prozesuetan gauzatutako ekarpenez ere hitz egin zen. Beraz, parte-hartze prozesuaren bidez, herritarren beharrei erantzuna ematen saiatzen da Udala.

el Ayuntamiento de Zumaia, por tercer año consecutivo, ha apostado por la participación y, para ello, ha vuelto a poner en marcha un proceso para elaborar los presupuestos del año que viene de una manera participativa. En ese

sentido, ya se han realizado algunas de las reuniones con los ciudadanos.

La primera reunión se realizó el 14 de octubre con los ciudadanos de los barrios aledaños al casco. La segunda reunión se realizó el 3

de noviembre, y en esa ocasión se reunieron con los agentes sociales de Zumaia. En la reunión de 17 de noviembre, los ciudadanos tuvieron la oportunidad de hablar sobre sus propuestas y peticiones con los técnicos y políticos del Ayuntamiento.

Hondakinen batzordea azken txanpan

ekainean martxan jarri zen Hondakinen Batzorde Herritarra ari da prozesuaren bukaerara iristen. Azken sei hilabeteotan zaborra kudeatzeko eredu ezberdinen inguruko

informazioa jaso eta beraien artean hausnartu eta eztabaidatzeko aukera izan dute. Horretarako, gonbidatu desberdinak izan dituzte beraien artean.

Prozesua abenduaren 9an bukatuko da. Bilera horretan, prozesuan parte hartu duten herritarrek prozesua baloratzeaz gain, aurrera begira zer eta nola egin nahi den erabakiko dute partehartzaileek.

La Comisión Ciudadana de Residuos se formó en junio y el proceso participativo ya está llegando a su fin. En esta comisión, los ciudadanos han tenido

la oportunidad de informarse, de debatir y de reflexionar sobre los distintos modelos de gestión de residuos. Para ello, han contado con la colaboración de varios invitados.

La última sesión del proceso será el 9 de diciembre. En esa reunión, además de valorar el proceso, decidirán el futuro de la Comisión Ciudadana.

Oikian eskola berria egiteko urratsak



Zumaiako Udalak 4.000 metro koadroko lursaila eskuratzeko akordioa lortu du Oikia auzoan. Egun Oikian dagoen eskola txiki geratu denez, Udalak erdietsi duen lursailean eskola berria eraikitzeko asmoa dago.

Orain arte, gaur egungo eskolaren atzealdean 1.500 metro koadroko lursaila zuen gordeta Udalak, eskola egiteko. Baina, 2005ean Eusko Jaurlaritzak egin zuen azterketak zioenez, gutxienez 3.000 metro koadroko lursaila behar da, oikiarren beharretara egokitutako eskola eraiki ahal izateko. Hori dela-eta eskuratu du Udalak bigarren lursaila.

Lursail berrian eskola eraiki ahal izateko, ordea, Udalak arau ordezkatzailleetan aldaketa egin beharko du lehendabizi. Izan ere, lur horiek nekazaritza jardueretarako daude izendatuta gaur egun, eta, eskola eraiki ahal izateko, aldaketa

egingo du Udalak. Ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari utziko dio lursaila, bertan eskola berria eraiki ahal izateko.

Eusko Jaurlaritza 2011n eskola eraikitzen hastekotan zen, baina, krisi ekonomikoa dela eta, atzeratu egingo dela jakinarazi dute.

Beste behar batzuei erantzuna

Udalak, bere aldetik, harremanetan jarraituko du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, eskola ahalik eta lasterren egin ahal izateko. Bestalde, libre geratuko den sailean, 1.500 metro koadroko sail horretan, Oikiak dituen beste behar batzuei begira zer egin aztertzeke aurreikuspenak egingo ditu Udalak. "Oikiako bizilagunekin landuko ditugu aldaketa zehatz horren helburuak, Oikiako beharrak oikiarrek ezagutzen dituztelako inork baino hobeto", adierazi du Andoni Etxaniz Zumaiako Udalaren Hirigintza zinegotziak.

el Ayuntamiento ha llegado a un acuerdo para la materialización de nuevas instalaciones y equipamientos que promuevan el bienestar de los vecinos de Oikia, puesto que, mediante una permuta de terrenos, ha conseguido una parcela de 4.000m² en el barrio, para construir el nuevo centro escolar. Una vez se realicen las modificaciones necesarias en las Normas Subsidiarias, este terreno de uso agrícola podrá ser utilizado para albergar la nueva escuela. El Ayuntamiento procederá a la modificación puntual de ese suelo, tras lo cual, cederá el terreno a la Consejería de Educación del Gobierno Vasco, para que se construya el nuevo centro. Por otra parte, el Ayuntamiento estudiará conjuntamente con los vecinos de Oikia las distintas posibilidades de uso del solar, de 1.500 m², en el que se ubica actualmente el centro escolar.



e I PNV cerró hace unas semanas la negociación con el PSOE para los presupuestos del 2011. La debilidad de Zapatero es manifiesta y hemos sabido aprovecharla para, entre otras cosas, abrir el cerrojo que durante 31 años tenían echado los sucesivos gobiernos del PSOE y del PP sobre las competencias del Estatuto de Gernika. Otro de los objetivos que se ha logrado es el de dar tiempo a Zapatero, un tiempo que deberá emplear la Izquierda Abertzale para lograr la consolidación del proceso de paz en Euskadi.

Pero además se negociaron una serie de partidas concretas para proyectos en I+D+I y determinadas inversiones prioritarias.

Entre las partidas de "inversión estratégica" el PNV ha logrado, por fin, que el Ministerio de Medio Ambiente, tenga que atender a la playa de Santio. Se ha logrado que Madrid acepte una partida de 500.000 euros para la redacción de los proyectos de obras (saneamiento, servicios de playas, y accesos) así como los proyectos de recuperación medioambiental, principalmente en las dunas, contenidos en el Plan Especial que aprobamos la pasada legislatura.

Durante años y años el Gobierno de Madrid (el único que detenta la competencia sobre costas y litoral) ha hecho caso omiso a las necesidades, evidentes, de nuestra playa. Se puede decir que Santio es el único arenal urbano de Gipuzkoa que carece de los mínimos servicios hosteleros y sanitarios. En agosto de 2008 el alcalde Iñaki Agirrezabalaga dijo públicamente que "Costas había adquirido el compromiso de redactar el proyecto de la rampa de acceso y que esperaba que estuviera ejecutada para el verano de 2009" Pero no. Ahora EAJ-PNV ha logrado 500.000 euros para la playa y otros 500.000 para el proyecto de paseo peatonal entre Getaria y Zumaia.

Ya lo dijo Ibarretxe: "el PNV gobernará aun estando en la oposición". Y lo hace, en Gasteiz, en Madrid y... en Zumaia.

ezker abertzalea

frontoiaren proiektua aurrera doa eta ari da pixkanaka mamitzen, eta izan dugu zer eztabaidatua, kokalekua dela eta. Herri-eskolaren ondoan, baina beste era batean jartzea proposatu genuen, teknikariek horrelaxe gomendatuta, hobe izan zitekeelakoan, baina ez ditugu guztiak konbentzitu, nonbait. Horregatik, gaia sakon aztertu eta eragile eta eragindakoeekin hitz egin ondoren, guztion artean erabaki dugu **frontoi berria lehengo lekuan uztea**. Kokaleku berria proposatu genuenean, herri-eskolaren beharrak kontuan izan genituen, noski; inork gutxik zekien, adibidez, Sagarbideko eraikinean solairu bat gehiago egin zitekeela, hau da, 12 gela gehiago ateratzea zegoela; batzuek leporatzen digute ez dugula ezer aurreikusten... Nola egiten zituzten aurreikuspenak beraiek, eskutan zer zuten jakin gabe?

Txomin Agirre kaiko lanak ere aurrera doaz. Zubia ari da itxura berria hartzen, eta lehengo aldapak etzan egin dira eta bidegorria eta espaloi zabalak lekua hartzen dira. "Ba al dakizu zenbat aparkaleku galdu diren inguru hauetan?", galdetzen zigun PNVk bere aldizkarian. Erantzuna garbia da: oinezkoek (zumaiar guztiok) irabazi ditugunak. Ez dago ikusi nahi ez duena baino itsuagorik.

Bestalde, martxan jarri da **Zumaiako kulturaren gaineko parte hartzeko prozesua**. Etorkizunean Zumaian kulturaren arloan zertan eta nola lan egin nahi dugun hausnartzeko eta erabakitzeko balioko digu, Zumaiaren kultur jarduera eta eskaintza hobetzeko, eta dei egiten diegu eragile eta interesatu guztiei parte har dezaten.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dugu **garai berriak zabaltzen ari dira Euskal Herriko politikan**. Lan handia egiten ari dira hainbat eragile, alderdi, elkarte eta nazioarteko begirale, Euskal Herrian benetako demokraziari ateak zabaltzeko; Estatua, berriz, urduri dago, eta urduritasun horren ondorioak Zumaian ere pairatu ditugu. Izan ere, Beñat Lizeaga atxilotzera eta inkomunikatzera etorri ziren, zergatik eta gazte eta independentista izateagatik, baina esku hutsik joan behar izan zuten. Hemendik gazte guztiei, eta bereziki Beñati, senideei eta lagunei, **gure elkartasuna, esker ona eta besarkadarik beroena**. Zumaian aspaldian ikusi ez ditugun elkartasun-eta babes-irudiak ikusi ditugu; balioko ahal digute maite ditugun gauzengatik are gogorrago lan egiteko.



jakina da, egoera ekonomikoa ez dela ona. Guri dagokigunez, Udalaren diru-sarrerak asko jaitsi dira azken urteotan. Era berean, Zumaia Lantzen elkarte publikoaren sarrerak ere asko jaitsi dira.

Udalaren diru sarreraren galera, batez ere, Foru Aldundiak urtero jartzen duen ekarpenean dago. Izan ere, Udalaren aurrekontuaren ia erdia da ekarpen hori. Bestetik, obra urbanistikoaren lizentziengatik jasotzen dugun diru sarrerak ere jaitsiera izan du.

Zumaia Lantzen dagokionez, diru sarreraren aurreikuspena jaitsi egin da. Duela urte batzuk, elkarteak onartutako proiektuak aurrera eramateko finantziario iturriak, ez zeuden ondo lotuak. Iturri nagusia, Torreagako hitzarmen urbanistikoa izatea aurreikusten zen. Guztira, 3.800.000 eurotako diru sarrera. Baina krisia etorri, eta promotoreak ordaindu ezinda azaldu ziren. Nahiz eta diru horren ekarpena egin zezaten saiatu, ezinezkoa izan zen. Zergatik? Hitzarmenean inolako bermerik ez zelako; eta, beraz, Udala hori betearazteko baliabide gabe zen.

Orain, beste hitzarmen bat egin dugu, garai berriei lotua. Torreagak aurrera segituko duela bermatzen da, eta diru kantitatea nahiz eta denboran luzatu, jasoko dugunaren bermeak ezarri ditugu. Baina bitartean, Zumaia Lantzenek 3.800.000 euro gutxiago ditu. Bestetik, Odieta urbanizatzeko 50.000 euro aurreikusten ziren, baina hara non, 0 bat gehiago jartzea ahaztu zitzaizen aurreko agintariei. Gaur egun Odieta obrak, 500.000 euro behar ditu. Eta zer esan, ambulatorio eta Bonbiloneko etxebizitzak lotzen dituen zubiaz? Hori ordaintzeko partidariak ez zen aurreikusten ez Udalean, ezta Zumaia Lantzenen ere. Guztira, aurreikusi gabeko 700.000 euro.

Nahiz eta Udalaren egoera bere horretan ez den txarra (Udal askok nahiko lukete gure egoera), ezin genezake gauza bera esan Zumaia Lantzenen buruz. Zentzuz eta arduratsu jokatu behar dugu. Egoera ekonomiko honetan, Odieta garajeak egitea, kontuan izanda 22 eskatzaile daudela, 6.000.000 euroko obrari ekitea, arduragabekeria litzateke.

Gakoa honetan datza: oinarririk gabeko proiektu fantasmak saldu, edo egia esanda arduratsu izatea. Edota errealitateari so eginda, erabaki zentzudunak hartzea.



motxo era oso susmagarrian zegoenean bazterra jo, eta bertan gelditu zen. Zer demontre egiten zuen? Gertaera horrek arrantza profesionalen jarduerak legediaren barruan ote dauden agerian jartzen du. Garbi utzi behar da, kostaz (Madril) dela arduraduna, eta beraiek erabaki dutela zer, nola eta noiz egin; bertako agintari, herritar eta Deba eta Zumaia ordezkariei ezer esan gabe. Kaltea eginda dago eta kalteak baloratzea oso zaila da. Itsasoan isuritako gasolioa bertoko arrainak jaterakoan, jango dugu, kopuru txikian bada ere.

Kalte fisikoa ere eragin du, gainera, txalupa arrastaka egon den toki guztietan brankak (flysch) era bat zapaldu ditu, eta datorren legeak dio, norbaitek baimenik gabe hartzen baditu harri lagin batzuk edo fosilak, isun gogorra jasoko duela. Eta Motxok eragindako askoz txarragoa da. Eta gure galdera da: nola baloratu Motxok eragindako kaltea?

Berrito gerta ez dadin administrazio guztiek benetako protokolo bat adostu beharko dugu, konpetentziak alde batera utzita.

Zumaia, Debako eta Mutrikuko inguruak Geoparke izendatu berri dira. Ze ondorio dakartza horrek? Turismo aldetik ona da, baina zenbat jende jasan dezake gure inguruak? Kontutan eduki behar dugu, dagoeneko inguru batzuk jendeak sortutako erosio handia dutela, eta oraindik kudeaketa plana egin gabe dagoela.

Draga bat dago azkenaldian Urola ibaiak sortutako lohiak ateratzen, baina legedia betetzen duen, ez daki Udalak. Behin eta berriz eskatu ditugu baimen horiek, baina hilabete pasatu ondoren, oraindik txosten horiek ez daude Zumaian.

Txosten horietan gauzez lan egitea, lohi kutsagarria den eta non bota behar den jarri behar du. Kutsagarria izanez gero, itsasotik kanpora atera, lehortu eta zabortege berezietara bota behar da. Udalaren konpetentzia ez dela eta, Zumaian dagoen "pizti" erraldoi baten jardueraz ez du jakin nahi izan.

San Jose kaleko etxe berrietan egin duten igogailua ez dute asmorik martxan jartzeko epe laburrean, baina planteatzen ari dira Eusebio Gurrutxagatik Ubillozera (musika eskolara) eskailera edo igogailua jartzea. Ez ahal da logikoagoa, hasitako lanak bukatzea lehenago?



el día 10 de noviembre, se celebro el día de la memoria a las víctimas, de todas las víctimas sin exclusión en todo Euskadi. Como acto unitario, y como única intención, no olvidar a las víctimas del terrorismo, apoyar a sus familiares con nuestro cariño y solidaridad, formando entre todos una barrera en la cual se estrelló la violencia sin sentido, y de paso a la convivencia, a la paz, al dialogo permanente entre todos por muy diferente que sean nuestras posturas políticas, y al respeto a la vida por encima de todo. En Zumaia no fue posible ante la negativa del Alcalde, a celebrar el acto de homenaje como en todos los Ayuntamientos, Gobierno Vasco y Diputaciones, por eso los concejales del PSE, realizamos un llamamiento a los vecin@s de Zumaia que quisieran acudir a una ofrenda floral junto con los familiares de las víctimas, al cual acudieron los concejales del PNV y vecinos, con la sana intención que el próximo año se pueda realizar el acto de forma unitaria. A través de estas líneas queremos agradecer la asistencia de las personas que tuvieron a bien acudir gracias.

Esperamos que para cuando salga la revista, el Motxo sea agua pasada y nunca mejor dicho, no vamos a dudar de nadie en cuanto que se trata de un accidente provocado por un golpe de mar que por otra parte nos ha dejado en otros lugares muestra de la fuerza que el mar desarrolla con temporales, aunque también hay que decir que se ven más barcos que los deseados y demasiado cerca de la zona del biotopo protegido, algo que no debería ser así. Habrá que esperar a la investigación en marcha por parte de la fiscalía.

Sin ánimo de polémica pero si como crítica de una actuación que a nuestro entender no es la adecuada para que un ayuntamiento sea respetado en sus ordenanzas debe primero respetarlas el mismo. En Torreberri se ha tirado un tabique para poner una barra de bar y la comisión de gobierno ni sabe ni contesta ¿tendremos que hacer lo mismo cuando haya que sancionar a un particular?. Denunciamos una vez más que las actividades que se desarrollan en el edificio, que por otra parte sigue sin recepcionarse, no son las adecuadas y menos aun que se tiren tabiques.

Urriaren 28ko ohiko plenoa

1.- Uztailaren 29an egindako bile-rako akta onartu zen.

2.- Proposamena:

2.1.- Azken operazio poliziala dela-eta; Talde Mistoak eta EAK aurkezturiko proposamena ez zen onartu, aldeko bost boto jaso bazituen ere (Talde Mistoa 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 1), kontrako sei jaso zituen (EAJ 3, PSE-EE 2, Pilar Etxabe 1).

2.2.- Talde Mistoak aurkeztutako proposamenaren aurrean, EAJ-PNVk beste bat aurkeztu zuen. Horrek aldeko bost boto jaso zituen (EAJ 3, EA 1, Pilar Etxabe 1), eta gainontzekoak abstenitu egin ziren (Talde Mistoa 3, Aralar-Alternatiba 1, PSE-EE 2)

3.- Gizarte zerbitzuak:

3.1.- Irizpena: Zumaiaiko gizon eta emakumeen arteko I. berdintasun planaren onarpena ez zen bozkatu, eta hurrengo plenoan eztabaidatuko dute.

4.- Hirigintza

4.1.- Irizpena: Zumaiaiko n-634 zaharreko zeharbidetaren jabetza Zumaiaiko Udalari eskualdatzeko hitzarmen berria aho batez onartu zen

5.- Pertsonala:

5.1.- Langileen lanpostuen zerrrendaren aldaketa hurrengo plenora atzeratu zen eta orduan eztabaidatuko dute.

6.- Ogasuna:

6.1.- Zumaiaiko Udaleko 8. kreditu aldaketa onartu zen aldeko sei botorekin (Talde Mistoa 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 2). Seik abstentzioa bozkatu zuten (EAJ 3, PSE-EE 2, Pilar Etxabe 1).

6.2.- Etxez etxeko laguntzarako kreditu aldaketaren proposamena onartu egin zen aldeko zazpi botorekin (Talde Mistoa 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 2, Pilar Etxabe 1). EAJk abstenitu egin zen eta PSE-EEk kontra bozkatu zuen.

6.3.- Alondegiko exekuziorako kreditu aldaketaren proposamena aho batez onartu zen.

6.4.- San Joseko plan berezirako kreditu aldaketaren proposamena onartu egin zen aldeko hamaika botorekin (EAJ 3, Talde Mistoa 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 2, PSE-EE 2). Pilar Etxabek kontra bozkatu zuen.

6.5.- Ekipamendu informatikorako kreditu aldaketaren proposamena onartu egin zen aldeko zortzi botorekin (Talde Mistoa 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 2, PSE-EE 2). EAJ abstenitu egin zen eta Pilar Etxabek kontra bozkatu zuen.

Azaroaren 8ko ez-ohiko plenoa

1.- Urriaren 28ko bilerako akta onartu zen.

2.- Onartu egin zen azken opera-

zio polizialaren aurrean Talde Mistoak eta EAK aurkeztutako proposamena. Aldeko bost boto (Talde Mistoa 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 1), bi kontra (PSE-EE) eta lau abstenitu egin ziren (EAJ).

3.- Pertsonala:

3.1.- Ez zen onartu langileen lanpostuen zerrrendaren aldaketa eta Ludotekako Hezitzaileen lanaldia handitzea. Aldeko bost boto jaso bazituen ere (Talde Mistoa, EA, Aralar-Alternatiba), kontrako sei jaso zituen (EAJ 4, PSE-EE 2).

3.2.- Aldeko bost boto jaso zituen (Talde Mistoa 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 1) langileen lanpostuen zerrrendaren aldaketak, eta Turismo eta Merkataritza teknikari-laguntzaile eta Turismoko administrari-laguntzaile plazak egokitzeak. Kontrako sei boto jaso zituen (EAJ 4, PSE-EE 2) eta ez zen onartu.

3.3.- Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzaile plaza bat %100eko lanaldian sortzearen aukera atzera bota zen. Aldeko bost boto jaso zituen (Talde Mistoa 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 1), eta kontra sei (EAJ 4, PSE-EE 2).

3.4.- Brigadako 'Lan-talde Ardura-dunaren' lanpostua amortizatzeko langileen lanpostuen zerrrendaren aldaketa ez zen onartu aldeko bost boto (Talde Mistoa 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 1) eta kontrako sei jaso zituelako (EAJ 4, PSE-EE 2).

4-Hirigintza:

4.1.- Aho batez onartu zen etxebizitzetarako hiri-lurzoruan finkatutako eremu batzuetan dauden aretoen erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko ordenantzari aurkeztutako iradokizunak, eta ordenantza behin betiko izaeraz onartu zen.

4.2.- Aho batez onartu zen ur-hornidura eta saneamendu sa-reak egikaritzeko araudi teknikoak behin-behineko izaeraz.

4.3.- Aho batez onartu zen behin betiko izaeraz 'Puntanoeta II' 1 alorrean xehekatutako ordenazioaren aldaketa, 1A, 1B, 2A, 2B, 3B, eta 4A partzelei dagokiona.

5- Gizarte Zerbitzuak:

5.1.- Aho batez onartu zen Zumaiaiko Gizon eta Emakumeen arteko I. Berdintasun Plana.

5.2.- Kontrako bederatzi botorekin (EAJ 4, Talde Mistoa 3, EA 1, Aralar-Alternatiba 1), atzera bota zen 2010. urterako garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzeta programak, gizarte sentsibilizaziozkoak eta ekintza humanitarioak diruz laguntzeko oinarri aurkeztutako erreklamazioa. PSE-EE abstenitu egin zen.

5.3.- Aho batez onartu ziren 2010. urterako Gizarte Zerbitzuen alorrean lan egiten duten elkarteetako diru-laguntzak emateko arau-oinarriak.

agenda *abendua diciembre / urtarrila enero*

Abendua / Diciembre

Asteazkena, 1 Miercoles

Gaztegunean 17:00etan Sukaldaritz tailerra. 1.txanda. *Cursillo de cocina en el Gaztegunean.*

Osteguna, 2 Jueves

Arratsaldeko 19:00etan, Aita Mari zineman, Julene Azpeitia 23. ipuin lehiaketako sarien banaketa eta emanaldia.

Ez dok hiru Bikoteatroaren EUSKARAZETAMOL antzezlan *Entrega de premios del concurso Julene Azpeitia. A continuación la obra 'Euskarazetamol' de la mano de Ez dok hiru Bikoteatroa.*

21:45ean Zine Forum: "Fish tank". *Cine Forum: "Fish tank"*

Ostirala, 3 Viernes

Euskararen Eguna / Día del Euskera

19:30ean, Aita Mari zineman, euskarazko dokumentala: 'Amerikanuak'

Emisión del documental 'Amerikanuak', en euskera en la sala Aita Mari.

22:00etan, Torreberri Gaztegunean, bideo emanaldia: Bertsotan Jai 2010

Proyección del video Bertsotan Jai 2010.

Larunbata, 4 Sábado

12:00etan hasita egitarau zabala: kalejira, Zumaian Saltaka euskararen alde, bazkaria, kantutegi kalejira eta erromeria. *Desde las 12:00 del medio día: kalejiras, Zumaia Saltaka a favor del euskera, comida, romería...*

Igandea, 5 Domingo

17:00etan euskarazko zinema haurrentzat. *Cine en euskara para los niños.*

Ostirala 10ean hasita, asteburuan / Desde el 10 al 12

ZUMAIAKO GABONETAKO AZOKA – Amaia plaza. *Mercado de Navidad de Zumaia en la plaza Amaia.*

22:00etan KAFE MUSIKALA: "Klarinetea eta,..." *Cafe Musical 'Clarinete y...*

Larunbata, 11 Sábado

10:00etan Turismo bulegoak antolatuta IRTEERA GEOLOGIKOA

10:00: Salida Geológica organizado por la oficina de Turismo.

19:00etan Komentuan, Lankidetz Astearen eta IX. Klarinete Maratoiarene barruan Zumaia Musika Bandaren kontzertua.

19:00: En el convento, organizado por Lankidetz Astea y el IX. Maratón de Clarinete concierto de la Banda de Música de Zumaia.

Igandea, 12 Domingo

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia, 'MIAULESS'. *'Miauless' teatro para niños.*

12:30ean komentuan, Klarinete Maratoiarene barne ikasleen kontzertua.

Dentro del Maratón de Clarinete concierto de los alumnos.

20:00etan komentuan, Klarinete Maratoiarene barne. String Quartet-Clarinet kontzertua. *En el convento dentro del Maratón del Clarinete concierto de String Quartet-Clarinet.*

Asteazkena, 15 Miércoles

Gaztegunean 17:00etan talo tailerra.1.txanda. *Taller de talo (1. grupo) en el Gaztegunean.*

Osteguna, 16 Jueves

21:45ean Zine Forum "Let's get lost" (VOS) *Cine Forum "Let's get lost" (VOS).*

Ostirala, 17 Viernes

19:00etan Komentuan, ZIIZen hitzaldia: "Zumaia Makina-erreminta fabrikatzaileak"

19:00: Charla del ZIIZ en el convento: "Los fabricantes de maquina y herramienta de Zumaia"

20:00etan eta 22:30ean Aita Marin, VAYA SEMANITA antzezlan

Teatro VAYA SEMANITA en Aita Mari

Larunbata, 18 Sábado

20:00etan Parrokian, GABON KONTZERTUA: LARTAUN eta SAN PEDRO Abesbatzen ESKU.

Concierto de Navidad de la mano de los coros Lartaun y San Pedro.

Astelehena, 20 Lunes

Gaztegunean 18:00etan "Zine Forum" 2.txanda. *Cine Forum (2. grupo) en el Gaztegunean.*

Astearte, 21 Martes

Santo Tomas festa arratsaldean ikastetxeekin Beheko plazan. *Fiesta de Santo Tomas en la Beheko plaza, a la tarde.*

Asteazkena, 22 Miércoles

Arratsaldean, Otezurin Beheko Plaza abesbatzaren saioa. *A la tarde, el concierto del Coro Beheko Plaza en Otezuri.*

Osteguna 23 Jueves

Gaztegunean 17:00etan "Zine forum" 1.txanda. *Cine Forum (1. grupo) en el Gaztegunean.*

Ostirala, 24 Viernes

09:15ean, kiroldegian, ARETO FUTBOL AZKARRA. *En el polideportivo ARETO FUTBOL AZKARRA.*

Eguerdia bitartean, "Niño Jesusen Eskean".

Hasta en mediodía "Niño Jesusen Eskean".

15:30ean Gabon Koruaren saioa kalez kale.

Concierto del Coro de Navidad en las calles.

17:00etan Aita Mari aretoan, Gabon Abestien lehiaketa Erkibe kultur elkarteak antolatuta. *17:00: Concurso de canciones navideñas organizado por la asociación cultural Erkibe.*

18:30ean Jaiotza ikuskizuna. *Exposición de Belenes.*

Astelehena, 27 Lunes

Gaztegunetik (2. txanda) eta Ludotekatik. Txuri Urdinera irteera.

Salida al Txuri Urdin del Gaztegunean (2. grupo) y de la Ludoteka.

Asteazkena, 29 Miércoles

Gaztegunetik Txuri Urdinera goaz .1 txanda.

Salida al Txuri Urdin del Gaztegunean (1. grupo).

Ludotekakoak PIN-era irteera LH4tik 6ra. Irteera irekia.

Salida al PIN organizada por la Ludoteka.

Osteguna, 30 Jueves

17:00etik 20:00etara Gaztegunean Gero Arte festa.

Fiesta Gero Arte del Gaztegunean.

18:00etan xake txapelketa.

Concurso de ajedrez.

Ostirala, 31 Viernes

11:30ean Amaia plazaatik irtenda BIKO LASTERKETA MISTOA.

13:30ean Kofradian sari banaketa: Biko Lasterketa, Erakusleho lehiaketa, eta Zumaia Merkataria eta Ostalari Onenaren sariak.

Carrera mixta Biko lasterketa. Despues, entrega de premios.

Urtarrila / Enero

Astearte, 4 Martes

18:30ean Errege Magoentzat eskutitzak jasotzea.

Recogida de las cartas escritas a los reyes magos.

20:00etan Aita Marin, GOSPEL JAIALDIA.

Festival de Gospel.

Asteazkena, 5 Miércoles

18:00etan hasita, Errege Zamalkada.

Cabalgata de Reyes.

Osteguna, 13 Jueves

21:45ean: Zine Forum: "80 EGUNEAN".

Cine Forum: "80 egunean".

Ostirala, 14 Viernes

22:00etan antzerki-kontzertua "DEMODE QUARTET".

Teatro-concierto de "Demode Quartet".

Igandea, 23 Domingo

12:00etan haur antzerkia, DEJABUren – "AZKEN PORTUA".

Teatro para niños "Azken Portua".

Osteguna, 27 Jueves

21:45ean Zine Forum LAS VIDAS POSIBLES DE MR NOBODY.

Cine Forum: "Las vidas posibles de Mr Nobody".

